



Ekipoa	Disolbatzaile gutxiko pinturak eta estaldurak izpi ultramoreen bidez ontzeko unitatea
Kodea	B-2007
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Konposatu organiko lurrunkorren emisioak murrizten ditu. - Energia-kontsumoa murrizten du.
Honetan datza:	<p>Unitate hori pinturak eta estaldurak ontzeko erabiltzen da, produktu horiek erradiazio ultramorearen eraginpean jarrita. Tradizioz, beroa erabili izan da pinturak eta estaldurak ontzeko eta disolbatzailea edo ura lurruntzeko. Izpi ultramoreen bidez ontzeko mekanismoa, berriz, pinturan eta estalduran dauden hainbat osagaiaren (monomero eta oligomero) arteko polimerizazio-erreakzioan oinarritzen da. Polimerizazio-erreakzio horien ondorioz, pintura edo estaldura likidoa ia bat-batean solido bihurtzen da. Izpi ultramoreekin ondu daitezkeen pintura eta estaldurak disolbatzailerik izaten ez dutenez, edo izatekotan gutxi izaten dituztenez, izpi ultramoreen bidez ontzeko prozesu horrek ez du konposatu organiko lurrunkorren emisiorik sortzen, edo oso gutxi sortzen ditu.</p> <p>Izpi ultramoreen bidez ontzeko unitate batek honako hauek ditu normalean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Izpi ultramoreak irradiatzeko lanparak (adibidez, merkuriozko lanparak, xenonezko pultsazio-lanparak edo laserrak). - Lanparek funtzionatzeko behar diren osagai elektrikoak edo elektronikoak. - Islatzaile bat, substratuan ahalik eta argi ultramore gehien islatzeko. - Lanparak –eta, agian, substratua ere– hozteko sistema bat, eta lanparentzako kutxa bat. - Beharbada, sistema erradiometriko bat sistematik ateratzen den energia ultramorearen kantitatea zehazteko. - Agian, uhal garraiatzaile bat edo bestelako sistema bat, substratua lanpararen azpitik pasarazteko.
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak.</p> <p>Teknika hau estaldura-lanetan aplikatu daiteke honako sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egurrezko produktuen fabrikazioa (NACE 16), adibidez, egur



gogorrezko lurzoruen fabrikazioa.

- Gomazko eta plastikozko produktuen fabrikazioa (NACE 22), adibidez, tutuen edo hodien estaldura, binilozko lauzak.
- Produktu metaliko aurrefabrikatuen fabrikazioa, makineria eta ekipoak barne direla (NACE 25 eta 28). Adibidez, lata metalikoak, bobina metalikoak, automobilgintzarako piezak.